BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3015

134/2014 DEKRETUA, ekainaren 24koa, «AVIFES» gaixo psikikoen eta haien familiakoen Bizkaiko elkartea gizarte-interesekotzat aitortzeko dena.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatzen denez, gizarte-interesekotzat aitortu ahal izango dira gizarte-zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak, hain zuzen ere, aitortzeko haien ibilbidea eta Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreak EAEko gizarte-zerbitzuak garatzeko emandako laguntza. Arauz ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte, betiere.

Urriaren 7ko 424/2013 Dekretuak, gizarte zerbitzuak ematen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeak gizarte-interesekotzat aitortzeari buruzkoak, gizarte-intereseko aitorpena lortzeko betekizunak eta prozedura arautzen ditu.

Haren babesean, «AVIFES» gaixo psikikoen eta haien familiakoen Bizkaiko elkarteak aipatutako aitorpena eskatu du, uste baitu merezi duela gizarte-interesekoa dela aitortzea, gizarte-ekintzaren arloan egiten dituen jarduerengatik.

Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jakinarazi bezala, «AVIFES» gaixo psikikoen eta haien familiakoen Bizkaiko elkartea irabazi-asmorik gabeko erakundea da, 1986an eratutakoa; haren xede nagusia da organo Administrazio Publikoarekiko aldarrikatzailea eta laguntzailea izatea, honek beharrezko baliabideak ipin ditzan laguntza psikiatriko eraginkorra eman dadila lortzeko, gaixo mentalen prebentzioaren, sendatzearen eta errehabilitazio sozialaren mailan. Elkarteak nahi du gizarteak gaixo mental horien egoeraren kontzientzia hartzea, aldeko iritzi publikoa sor dadin. Kontsulta-, informazio- eta orientazio-zentro izan nahi du gaixo psikikoak dituzten familientzat edo arazo honetan interesa duen ororentzat. Eragindakoen parte-hartzea sustatu nahi du, zerbitzu psikiatrikoetan eta osasun mentalekoetan. Eragindako guztien gizarteratzea eta laneratzea sustatu nahi du. Gaixo mentalen eta haien familiakoen arretaren esparruko prozesuen eta emaitzen azterketa eta ikerketa sustatu eta garatu nahi du. Ibilbide historikoa du Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak ematen; izan ere, egiaztatu du bere jarduera etenik gabe burutu duela 2008tik, Bizkaiko Lurralde Historikoan, nagusiki.

Aipatu urriaren 7ko 424/2013 Dekretuan xedatutakoaren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluak emandako dekretu bidez egingo da gizarte-intereseko aitorpena, gizarte-zerbitzuen arloan eskumena duen sailburuak proposatuta, zeinak dagokion espedientea izapidetuko baitu.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2014ko ekainaren 24an egindako bileran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Aitortzea «AVIFES» gaixo psikikoen eta haien familiakoen Bizkaiko elkartea gizarte-interesekoa dela, burutzen dituen gizarte-ekintzen bidez Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuak garatzen laguntzeagatik.

2. artikulua.– Aitortzea «AVIFES» gaixo psikikoen eta haien familiakoen Bizkaiko elkarteari aitorpen honen berezko eskubideak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 74. artikuluan xedatutakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko ekainaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.